

KOSTU EGITURA

KOSTU FINKOAK

Kostu finkoak denbora tarte luze batean konstante mantendu egiten diren kostuak dira, eta nahiz eta salmentetan moldaerak egon, kostu honen balioa ez du aldaketarik jasango.

1. Fabrikaren alokairua
2. Kapital fisikoa
3. Soldatak

Kontratu mugagabe bat izanda, kontratatutako langileak kostu finkoetan kokatuta egongo lirateke.

4. Publizitatea eta marketing-a
5. Ura (atal finkoa)
6. Argia (atal finkoa)

KOSTU ALDAKORRAK

Kostu aldakorrak gure enpresaren barruan aldatzen diren kostuak dira. Aldaketa hauek salmenten kopuruaren ondorioz gertatu egiten dira.

1. Materiala

Erabiliko ditugun materialen prezioa alda daiteke.

Lehengo batetik gure eskaera aldakorra izango delako: Egongo dira hilabete batzuk material gehiago beharko duguna gure txip-a eraikitzeke. Hori gure enpresaren arabera joango da.

Geroz eta txip gehiago ekoizten baditugu material gehiago erosi beharko dugu, gure eskaleen nahiak betetzeko eta geroz eta fama gehiago lortzeko.

Baina hasieran, gure enpresako produktuak merkatura zabaltzerakoan ez da hainbesterako material beharko, produktuaren eskaria ez delako hain handia izango.

Materialaren prezioa beste aspektu baten ere alda daiteke: Material horren kantitatea zenbatekoa den. Honekin esan ahi dut, gure txip-arentzako materialak agortu daitezkeela. Materiala soberan badago nahiko merkeagoa izango da, baina agortzen joan ahala dena garestiago jarriko da eta beste ekoizle batzuk bilatu beharko ditugu. Kostua hain handia ez izateko.

2. Fabrika mantentzea

Fabrika mantentzeko, hainbat gauza hartu behar dira kontuan: Ekoizpenaren irregulartasuna, makina aberiatu ahal direla, garbitasuna eta langileentzako segurtasuna.

- Ekoizpenaren irregulartasuna: Pertsona askok bizitzeko diru justua dute eta ezin izango dute gure produktua eskuratu, eta gure produktua erosten duten enpresek ez dute hilabetero gure produktuaren kantitate berdina erosiko. Guk orde, produktu kantitate berdina egin beharko dugu eta izan daiteke irabaziak izan arte, kostu handiagoak izango ditugu
- Makinak apurtzen badira, mekaniko bat kontratatu beharko dugu eta horrek kostua handitu dezake, makinaren arazoaren arabera. Makinak ordezkatu beharko dira bat apurtzen bada, konpondu bitartean txip kantitate berdina ekoizteko.

Makinaren bat apurtuta badago gure langileentzako arazoa izan ahal da horregatik dirua inbertitu beharko genuke gure langileen segurtasunean

- Garbiketa ere aldakorra da horregatik flexibleagoak izan behar gara garbiketa produktuak erosterako orduan. Ez da berdina izango hilabetero.

3. Ura (kontsumoaren arabera)

4. Argia (kontsumoaren arabera)

5. Soldatak

Langile batzuk denboraldi konkretu baterako bakarrik badatoz (ETT), haien soldata aldakorra izango litzateke bakarrik denboraldi zehatz batean egongo direlako enpresaren barruan.